



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996ko abenduaren 23a

71 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak onartutako osoarekiko emendakina (3. or.).
- Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoarekiko emendakinak (3. or.).
- Balioak eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoarekiko emendakinak (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa. Aurkeztutako emendakinak (4. or.).

#### D SAILA:

##### **Hitzarmenak:**

- Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioarekin batera izenpetzeko Lankidetzaren Hitzarmena, gazte aterpekidetasunaren presentzia eta sustapenerako partzuergora biltzeko. Osoko Bilkurak baimena emanda (8. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

- Mozioa, Nafarroako Gobernua Itoizko urtegiko obren gelditzeak ukitu dituen langileen alde neurriak hartzera premiatzen duena, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (9. or.).
- Mozioa, presoek sakabanatze politikari bukaera ematearen aldeko iritzia adierazten duena. Osoko Bilkurak baztertua (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Tuterako Katedrala zaharberitzeko obra orokorreari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eginga (11. or.).

- Babes ofizialeko etxebizitzaren baremoa arautzen duen legeria aplikagarriari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (12. or.).
- Lurzati kontzentrazioaren prozesuari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- Marcillako gaztelua zaindu eta zaharberritzeari buruzko galdera, Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- Larraga-Lerin errepidea egokitzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- “Itoizko urtegiaren gelditzeak ukitutako enpresendako eta langileendako kalteordainak” izeneko aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- 1996-1997 ikasturterako Gizarte Bermeko Egitarauaren zenbait gorabeherari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- “La vida moral y la reflexión ética” tituluko D.B.H.ko 4. ikasturteko testu liburuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Hezkuntza Departamentuaren gaineko zenbait gairi buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak aurreikusi ote duen Osasunbidean hurrengo ezartzea: HIESaren pronostikoa neurtzeko prozedura, birus zamaren bidezkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

**G SAILA:****Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa (21. or.).

**H SAILA:****Bestelako Testu Arau Emaileak:**

- Iruztun-Altsasu Autobia–Sakanako Autobia obrei buruzko Parlamentuko Ikerketa Batzordea sortzea. Osoko Bilkurak onetsia (25. or.).

---

**A Saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektua**

### *OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO OSOAREKIKO EMENDAKINA*

Nafarroako Parlamentuak, 1996ko abenduaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektua Foru Diputazioari itzultzea.

Beraz, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikulua ezarritakoarekin bat etorritz, aipatu proiektua bertan behera gelditu da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 18a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

## **Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua**

### *OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOAREKIKO EMENDAKINAK*

Nafarroako Parlamentuak, 1996ko abenduaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen: «Eusko Alkartasuna-Askotariko», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra», «Ezker Abertzalea» eta «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoarekiko emendakinak baztertzea.

Beraz, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikulua ezarritakoarekin bat etorritz, aipatu proiektua Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeari bidaliko zaio.

Iruñean, 1996ko abenduaren 18a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

## **Balioak eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua**

### *OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOAREKIKO EMENDAKINAK*

Nafarroako Parlamentuak, 1996ko abenduaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen: «Nafarroako Demokraten Elkargunea», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra», «Ezker Abertzalea» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek balioak eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoarekiko emendakinak baztertzea.

Beraz, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikulua ezarritakoarekin bat etorritz, aipatu proiektua Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeari bidaliko zaio.

Iruñean, 1996ko abenduaren 18a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**B Saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

## **Foru Lege proposamena, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa**

### *AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK*

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko Foru Lege proposameneko artikuluei egin zaizkien emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da. 1996ko urriaren 18ko 54 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

#### 2. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

##### 1. EMENDAKINA

###### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluari aurkeztutako emendakina, "txikiak" hitza (bitan) kentzekoa.

Zioak: Zehaztasunik ez duenez, "txikiak" hitzak nahibe zalakotasun elementuak sartzen ditu.

#### 3. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

##### 2. EMENDAKINA

###### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari aurkeztutako emendakina, b) letra kentzekoa.

Zioak: Ez du justifikaziorik jardunbide bat, nahitaezko desjabetzapena, hain zuzen ere, eskatzeak laguntzak hartzeko betebeharrak gisa toki entitate eskatzaileak jarduketa urbanizatzailea egin behar deneko lurren jabetza bereganatzeko.

Funtsezkoa eta beharrezkoa dena da lurra udal jabetzarenak izatea. Ez du inolako muntarik zer hirigintza jarduketa sistema dagoen aurreikusita planeamenduan, bereziki, kontutan hartzen bada toki entitateak lurren truk ordaindu beharrezko prezioak ez duela bat ere ukitzen dirulaguntza-zenbatekoa. Izan ere, 9.1.b) artikuluan aurreikusten da, dirulaguntza zenbatzeko, lurren kostua ez dela benetan ordaintzen dena, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak zenbatsten duena baizik.

##### 3. EMENDAKINA

###### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3.c. artikulua aldatzekoa emendakina, "salbuespen gisa" hitzen orde, "hala bada" jartzeko.

Zioak: Terminologia hain latza ez izatea, kautela nahikoa eta 2. artikuluan erabiliriko hitz eta irizpideari eustea.

##### 4. EMENDAKINA

###### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari aurkeztutako emendakina, gehitzekoa.

Proposatzen da beste hiru lerroalde gehitzea, haxe esanetan dutenak:

Lege honetan aurreikusten diren onurak, Toki Administrazioari buruzko Foru Legean zerbitzu publikoak kudeatzeko aipatzen den edozein moduren bidez sustapenean esku sartzen badute ere, toki entitateei aplikatuko zaizkie. Toki entitateek entitate kudeatzaileari uzten ahalko dizkiote edo ez emaniko onurak.

Halaber, Nafarroako Gobernuak Kapital Publikoaren Sozietateak ere izanen dira lege honetan aurreikusirik laguntzen onuradun.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, artikulua honetan ezarritako betebeharrak aski den moduan bete direla uste ez bada, horiek zein diren adieraziko dio entzun dakiokkeen sustatzaileari eta, hala bada, bidezkoa den erabakia hartu baino lehen zuzendu edo osa ditzala.

Zioak: Poligono horien sustapena zerbitzu publikoa da, legez aurreikusirik edozein moduren bidez egiten ahal dena, eta sustatzaileari entzun egin behar zaio, ezesten duen erabakia merezi aitzin, behar diren baliabideak erabil ditzan.

#### 4. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

### 5. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari aurkeztutako emendakin, 2. ataleko lehenengo leerroaldea ordeztzekoa.

Haren ordeze, hau jar dadila proposatzen da:

“2. Kredituak sor ditzakeen korrituen adinako dirulaguntza, baldin eta haren puska nagusia poligonoko urbanizazio obren % 50ekoa bada, eta, hala balitz, lurra erosteko kostua.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, Nafarroako Gobernuak baimendurik, hitzarmenak izenpetzen ahalko ditu finantza-entitateekin, haietan ezartzen diren baldintzetan. Kasu horretan, entitate sustatzaileek finantza-entitateetarikoa batekin izenpetuko dituzte kredituak.

Zioak: Hitzarmenik ez bada, dirulaguntza askatzea. Hitzarmenik bada, hari atxikitzea.

### 6. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4.1. artikuluari aurkeztutako emendakina, gehitzekoa.

Beste leerroalde bat gehitzea proposatzen da, testu hau izanen duena:

“Aurreko leerroaldean aipatzen diren proiektuen prestakuntza profesionali esleituko zaie, konkurrentzia librea eta lehiaketa bidez. Prestakuntza-aren esleipenak egin beharreko obretako zuzendaritza dakar berarekin”.

Zioak: Profesionalen aukera-berdintasuna ematea, ideia berriak hartu eta alderatzea eta aukeraturiko proiekturik hoberenari lehentasuna ematea.

#### 7. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

### 7. EMENDAKINA

#### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari aurkeztutako emendakina, lehenengo tarteko puntua ordeztzekoa. Hona hemen ordeztzeko testua:

“Jardun nahi deneko lurra dauden herriko planeamenduaren bidezko hirigintza kalifikazioa egiaztatzen duen ziurtagiria, eta bertan zehaztu behar da lur horiek udal titulartasunekoak diren ala ez”.

Zioak: Planeamenduan aurreikusirik jarduketaren sistemaren aipua kentzea, 3 artikuluko b) letrari aurkeztutako emendakinarekin bat.

### 8. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari aurkeztutako emendakina, ordeztzekoa.

Hirugarren leerroaldean, “Dagoen lurzati-eskariari buruzko datuak eta eskatzaileen konpromezuaren zenbaterainokoa” hitzen ordeze, hau jarri:

“Dauden lurzatiaren eskariari buruzko datuak eta eskatzaileen konpromezuaren zenbaterainokoa,

konpromezu horiek biltzen dituzten agiriak erantsiko direlarik, baita proposa litekeen balizko kudeaketa modua edo bereganatzen diren diru-ekarpenak ere.

Zioak: Konpromezua kontrolatzeko biderik hoberena ekartzea da. Halaber, eskatzaileek hala nahi badute, momentu horretatik aurrera, poligonoa kudeatzeko partaidetza modu juridiko bat mahaigainera dezakete.

## 9. EMENDAKINA

### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari aurkeztutako emendakina, gehitzekoa.

Azken lerroalde bat gehitzea proposatzen da. Testu hau izanen du:

“Toki entitatea ez beste pertsona juridiko batek egiten badu poligonoaren sustapena, agiri bat aurkeztuko da, non sustatzailearen nortasun juridikoa ezarriko baita edo sustapena arautu behar duen baldintza, itun eta konpromezuak bilduko baititu, baita, hala bada, haien konpromezu ekonomikoak ere.

Hala ere, toki entitateak, hasiera batean, kudeatzen ahalko du sustapena, legez aurreikusirik edozein modutan izan daitekeen ondorengo kudeaketa deustan galarazi gabe.

Zioak: Sustapenari eusten dion agiria ezagutzeko segurtasun juridikoa.

### 8. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

## 10. EMENDAKINA

### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

8.1 artikuluari aurkeztutako emendakina, gehitzekoa.

Beste lerroalde bat gehitzeko emendakina, eduki hau izanen duena:

“Toki Administrazioiko Departamentuak luzatu beharreko txosten horrek, dagoenean, lurzatiek eskatzaileek ekarritako konpromezu dokumentatua ere hartu beharko du kontutan.

Beti ere, Toki Administrazioiko Departamentuak luzatu beharreko txostena negatiboa denean, luzatu aitzin, sustatzaileari entzunen zaio, aintzat harturiko zioak zehaztuko zaizkiolarik, eta hogeiguneko epea emanen zaio alegazioak eta agiriak aurkezteko. Horiek aurkezturik edo epea bukatu-rik, txostena luzatu eginen da”.

Zioak: Sustatzaileari proposamena zuzendu edo hobetzeko aukera Departamentuak txosten negatiboa luzatu aitzin ematea, garrantzitsuna dena.

## 11. EMENDAKINA

### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

8.2. artikuluari aurkeztutako emendakina, ordeztzekoa.

Idazketa hau proposatzen da:

“2.- Lehentasun irizpideak laguntzak ematera-koan.

Gastuen aurrekontuan horretarako kontsignaturiko dagoen eskuragarritasunaren arabera, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak laguntzen ematea batziko du, ondoko hautapen irizpideei jarraikiz:

– Sustapena elkarren ondoan edo elkarrengandik hurbil dauden toki entitate batzuek izenpe- turik egotea edo kudeaketak helbidea haietan duten pertsona juridikoak biltzea.

– Egun dauden jarduerak lekuz aldatu beharra, bai kokagune desegokian daudelako, bai jarduera haunditu behar delako, baita jarduera berriak kokatzeko dauden eskariak ere.

– Lurzatiak eskatu dituzten konpromezuaren zenbaterainokoa, orube erosketaren, diru-ekarpenen eta kudeaketako eskusartzearen portzentaie- tan.

– Lurzatiek benetako eskarien ondoriozko lan- postuak sortzea edo daudenei eustea.

– Proiektua Foru Lege honetan ezarritako iriz- pideekin bat datorren ala ez, ondoko alor hauetan: proiektuaren neurrien edo haren aldi desberdinen doikuntza egokiagoan, dauden egiazko eskakizu- netan, eta lurren, urbanizazio lanen eta azpiegitu- ren kostuen jaistean, baita ondoriozko multzoari dagokionez ingurugiroa babesteko alderdiei ema- niko koponbidean.

– Proiektuaren garapenerako aurreikusitako epe laburragoak, hura lehenago exekutatzeko eta

laguntza hauen helburu dien fondoak arinago erabiltzeko.

– Eskualdeko poligonoetako lurzatiak eskuratzeko beste aukerarik ez izatea.

Zioak: legearen helburuak hobeki konpontzea.

## 10. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

### 12. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluari aurkeztutako emendakina, gehitzekoa.

Laugarren lerroaldeari hurrengoa gehitzea proposatzen da: “eta, hala bada, itzultzea”.

### 13. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Beste artikulua bat gehitzeko emendakina.

Beste artikulua bat gehitzea proposatzen da. Hona hemen haren testua:

“11. artikulua. Toki entitate batean, bertan eta, hala bada, hurbilenak direnetan bizi diren pertsona batzuek hiri lurzorua eskatzen dutenean bertan lege honek aurreikusiriko jarduerak paratzeko, horretan eskatzen dena behar bezala betetzen badute, toki entitateari jotzen ahalko dute eskatzeko ekimena aintzat hartu eta jarduera ekonomikoetako poligono bat susta dezala. Eskabidea ikusi-

rik, toki entitateak aintzat hartuko du ekimena eta bidezkoak diren biderapenei lotuko zaie.

Horri bidezko irizten ez bazaio, eskabidea Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentura bidaliko du. Horrek bere irizpidea luzatuko du, ea eskabidea legeko helburuekin bat datozen.

Departamentuaren txostena eskabidearekin bat baletor, toki entitatearendako lotgarria izanen litzateke eta sustapenari ekin beharko lioke.”

Zioak: Toki entitatean oztopoak aurki ditzaketen enpresarioen protagonismoa.

### 14. EMENDAKINA

#### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen Gehigarria gehitzeko emendakina, hitz hauekin:

Xedapen Gehigarria.

Foru Lege honetan aurreikusiriko laguntzen onuradun diren Toki Entitateek, laguntzen ondorioetarako, jarduera ekonomikoetako poligonoen sustapena Toki Entitateen beraien edo Nafarroako Foru Komunitatearen Kapital Publikoko Sozietateekin hitzartzen ahalko dute. Haiek osaturik egonen dira poligono horiek kudeatzen eta burutzen eraginkortasunez laguntzeko, horretarako ematen zaizkien onurak haietara bidaliko direlarik.

Zioak: Egokitzen jotzen da Toki Entitateek, egoki baderitzote, Foru Lege proposamen honetan bilduriko aurreikuspenak Toki Entitateen beraien edo Nafarroako Foru Komunitatearen kapital publikoko sozietateetara bidali ahal izateko aukera biltzea, jarduera ekonomikoak paratzeko poligonoak urbanizatzeko obrak proiektatu edo sustatzeko.

---

**D Saila:**  
**HITZARMENAK**

---

**Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioarekin batera izenpetzeko Lankidetz  
Hitzarmena, gazte aterpekidetasunaren presentzia eta sustapenerako  
partzuergora biltzeko**

*OSOKO BILKURAK BAIMENA EMANDA*

Nafarroako Parlamentuak, 1996ko abenduaren 17an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Foru Diputazioari baimena ematea hurrengo Lankidetz Hitzarmena formalizatzeko: gazte aterpekidetasunaren presentzia eta sustapenerako partzuergora biltzeko Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioarekin

batera izenpetu beharrekoa Beronen testua 1996ko azaroaren 28ko 65 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 18a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---



**E SAILA:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

## **Mozioa, Nafarroako Gobernua Itoizko urtegiko obren gelditzeak ukitu dituen langileen alde neurriak hartzera premiatzen duena**

### *«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak Nafarroako Gobernua Itoizko urtegiko obren gelditzeak ukitu dituen langileen alde neurriak hartzera premiatzen duen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Eregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, mozioa eztabaidatuko den bilkura-egunaren aurreko eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 193. artikulua eta horrekin loturikoek ezarritakoaren babesean, hurrengo Mozioa aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1996ko apirilaren 6an, “Solidarios con Itoiz” taldeko zortzi kidek Itoizko urtegiko hormigoitze lanak egiteko jarri ziren hiru blondineen kableak moztu zituzten.

Kalteen larriak aipatu obrak ia erabat gelditu beharra eragin zien enpresa eraikitzaileei.

Ekintza horren ondorioz, obrak egiten ari ziren langileei lan kontratua deuseztu edo eten egin zitzaizen, kasu bietan lanik gabe geratu zirelarik.

Kontuan izanik langileei eragindako kalteak, alegia, obrak etenda zeuden bitartean prestazio kontributibo zein laguntzakoak jasotzeko eskubiderik ez zutela, Nafarroako Gobernuak, 1996ko apirilaren 22an erabaki zuen laguntza edo dirula-

guntza batzuk paratzea, Itoizko urtegiaren erai-kuntzaren etenak langile zein enpresei eragindako ekonomi ondorio larriak arintzeko.

Horretarako, Foru Lege proiektua bidali zion Biltzar honi, Lehendakaritza Departamentuari Itoizko Urtegiko lanen gelditzeak enpresei eta langileei kalteak ordaintzeko, aparteko kreditua eman eta haren aplikazioa arautzeko

Aipatu aparteko kreditua, eta horren erabilpenaren arauketa, 43 aldeko botorekin onartu zen, kontrako botorik eta abstentziorik gabe, Nafarroako Parlamentuak joan den maiatzaren 9an egindako Osoko Bilkuran.

Foru Lege horrek aurrekontu kontusail berri bat finantziatu zuen, “Itoizko urtegiaren gelditzeak ukitutako enpresendako eta langileendako ordainketak” izenekoa, “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” aurrekontu kontusailaren kontura.

Foru Lege horrek bere 3. artikuluan dio diru laguntza edo kalteordainen onuradunak direla: “bere lan kontratua deuseztatua edo etena duten langileak, beti ere Enpleguaren Institutu Nazionalaren (INEM) prestazioak, kontributiboak zein laguntzakoak, jasotzeko eskubiderik ez badute”.

Maiatzaren 13ko 6/1996 Foru Legeak, halaber, ukitutako enpresa eta langileendako laguntza ekonomikoak arautzen zituen, eta horien tramitazioa eta ordainketa ere.

Langileendako jarri ziren laguntzen iraupenaz denaz bezainbatean, lege horrek zioen: “Dirulaguntzak 1996ko apirilaren 11tik gelditutako lanak hasiko diren eguna arte iraunen du. Edozein kasutan ere 1996ko abenduaren 31n bukatuko dira.”

Kaltetutako instalazio guztiak bereonertzeko egiten ari diren lanak bukatzeaz daude, baina ez

dirudi 1996ko abenduaren 31 baino lehen bukatu-ko direnik.

Horiek horrela, mozio hau aurkeztu dugu, hurrengo helburuarekin: aipatu obretako langileek jasandako ondorio ekonomikoak arintzeko bere garaian ezarri ziren laguntzei eustea, langile horiek Itoizko urtegia eraikitzeko lanen jarraipenera ohiko martxarekin sartu arte. Beraz, Biltzarreko Osoko Bilkurari hurrengo Erabakia hartzea eskatzen diogu:

Nafarroako Parlamentuak premiatu egiten du Nafarroako Gobernua egoki iritzitako erabaki edo ebazpenak har ditzan, Itoizko urtegiko obrak gelditzearen ondorioz lan kontratuak eten edo deuseztu zaien langileek, alegia, maiatzaren 13ko 6/1996 Foru Legearen xede diren haiek, ezarritako laguntzei eusteko, gelditutako obretako lanetara benetan itzuli arte.

Iruñean, 1996ko abenduaren 12a

Bozeramalea: José Javier Sánchez Turrillas

---

## **Mozioa, presoen sakabanatze politikari bukaera ematearen aldeko iritzia adierazten duena**

### *OSOKO BILKURAK BAZTERTUA*

Parlamentuko Osoko Bilkurak, 1996ko abenduaren 17an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen: «Ezker Abertzalea» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek aukerkeztu duten presoen sakabanatze politikari bukaera ematearen aldeko iritzia adierazten duen

mozioa baztertzea. Berau 1996ko azaroaren 28ko 65 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 18a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**F Sails:**  
**GALDERAK**

---

**Tuterako Katedrala zaharberritzeko obra orokorreari buruzko galdera***MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako Katedrala zaharberritzeko obra orokorreari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apestequiá

**GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco, Izquierda Unida-Ezker Batua Parlamentari Taldeari atxikirio Foru Parlamentari jaunak, Parlamentuko Erregelamendua-  
ren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Iragan urrian, Parlamentari honek galdera bat egin zuen Tuterako Katedralaz eta hori zaharberritu beharraz, Monumentu historiko-artistikotzat joa dago eta.

Erantzuna, azaroaren 29an, epez kanpo beraz, hartu zena ezin izan dena-beharrekoagoa.

Ez dioenagatik, Parlamentari honek horren berri baitzuen, lanak aurreko Gobernu "hirukoak" hasi zituen eta, eginiko galderak ihardesten ez dituelako baizik.

Obrak zuzentasunez egiteko beharrezkoak diren azterketez gain.

1996ko agorrilaren 5etik hein bateko eta xehe-  
tasunezko obrez gain.

Interesgarritzat jotzen da jakitea:

1.- Gobernuak asmorik ote duen Tuterako Katedrala zaharberritzeko obra orokorreari ekiteko.

2.- Gobernuak asmorik ote duen 1997rako aski dotazioa duen berezko kontusailik ezartzeko, kasuan kasuko proiektuaren arabera izan litezkeen zaharberritze lan gehienak egiteko.

Hala bada, zer kontusail eta zer dotazioz.

3.- Noizko uste du Gobernuak has litezkeela obra gehienak, zenbat denbora iraun beharko luketen eta zer aurrekontu behar litzatekeen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 9a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## Babes ofizialeko etxebizitzaren baremoa arautzen duen legeria aplikagarriari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 16an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak babes ofizialeko etxebizitzaren baremoa arautzen duen legeria aplikagarriari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarrikoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Berriki, komunikabideen bidez, jakin dugu bi Udalek erabaki dutela beren jabetzako lurra, publikoak, besterentzea, kasuan kasuko udalerrian, babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza sustatzeko. Zizur Nagusiko eta Uharteko udalak dira, biak Iruñerrian kokatuak.

Uhartean, Ugarrandia etxebizitza taldeari zuzenean saldu zaio udalak Mariaren Lagunarteari erosi zion lurzatia.

Babes ofizialeko 48 etxebizitza eraikitzeke, lurraldea 53.963.714 pezetatan besterenduko da eta hornidurazko ekipamendurako lokalerako 480 metro karratu 14.400.000 pezetatan baloratu dira.

Zizur Nagusian, Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko F-7 lurzatia salgai jarri du, lehia-keta irekian, babes ofizialeko 78 etxebizitza eraikitzeke. Lurralde hori 167.554.140 pezetako salneurri finkoan besterenduko da.

Bi kasuetan, udal jabetza publikoak saldu dira, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke, erosketetarako baldintza plegu eta hautatze-baremoaren arabera. Zizur Nagusiko Udalak, urriaren 25ean eginiko osoko bilkuran onetsi zituen. Uhartekoak ez ditu oraindik onetsi.

Uharteko baremoak gorabehera hauek baloratzen ditu: udalerrian bizitzea (150 puntu), jabetzako edo alokairuko etxerik ez edukitzea (100

puntu), bizigarritasun baldintzarik ez daukan etxebizitza batean bizitzea (100 puntu), kaleratzearen xede den etxebizitza batean bizitzea (100 puntu), alokairuko etxebizitza batean bizitzea, errentak dirusarreraren % 50 edo gehiago egiten duelarik (100 puntu), lanbideen arteko gutxieneko lansariaren bi halakotik beheitiko dirusarrerak (50 puntu), etab.

Zizurko baremoak gorabehera hauek baloratzen ditu: udalerrian bizitzea (400 puntu 1988/1/1 baino lehen errolaturiko eskatzaileendako; 300 puntu, 1990/1/1 baino lehen; 200 puntu 1992/1/1 baino lehen; 100 puntu 1994/1/1 baino lehen; 75 puntu, 1996/1/1 baino lehen; 50 puntu 1996/1/1etik aurrera); bizigarritasun baldintzarik ez daukan jabetza edo alokairuko etxebizitzan bizitzea (75 puntu); alokairuko etxebizitza batean bizitzea, familiakideren batendako egokia ez bada edo, familiakideak/m<sup>2</sup> erlazioaren arabera, aski ez den azalera badauka (75 puntu); kaleratzearen xede den etxebizitza batean bizitzea (70 puntu), etab.

Ikus daitekeenez, baremoak oso ezberdinak dira babes ofizialeko etxebizitzetarako bat erosteko hautagaiek bete behar dituzten baldintzak baloratzerakoan.

Nafarroan arloko jarduketa babesgarriak finantzatu eta bultzatzeko neurriak buruzko maiatzaren 10eko 155/1993 Foru Dekretuak, gaurregun indarrean dagoenak, argitaratu eta gero xehetasuneko aldaketaren batekin, aztertzen ari garen gaiarekin zerikusirik ez duenak, espreski eta argi eta garbi hau azaldu zuen: "higiezinaren merkaturatu modu erabakior batez eragiteko borondatea ..., eta horrela etxebizitza ugari eskainiko da, salmentarako eta errentan hartzeko, hiritarren beharkizunak era egokian bete ahal daitezen, batez ere baliabide ekonomiko urriagatik aginte publikoen babesaren behar handiena duten kasuan".

Babestekoak diren jarduketa horiek burutzen saiatzen da, ikusten ahal izan dugunez, baliabide ekonomiko urriak dauzkatenean beharrak betetzea xede duen etxebizitza politikari ekiten. Hori dela eta, arautze horrek errenta banaketarako balio du nolabait.

Hori horrela bada, alokairuak hautatzeko baremoak eskatzaileen gaitasun ekonomikoaren arabera baloratu behar dira, zenbat eta dirusarrera gutxiago eta horrela.

Eskualde bateko beharrei hobeki egokitzeko, komenigarria ematen du erakunde publikoek, beharrezko baderitzote, baremoen artikulazio praktikoan, ezinbesteko betebeharez gain, beste elementu batzuk ere sar ditzatela, ondasun publikoak administratzen dituenaren aldetik espreski kontu hartu behar diren arazo eta egoerak aintzat har daitezten, hala nola: adina, lan edo famili egoera, etxebizitzaren baldintzak, etab., alegia, lortu nahi diren helburuekin bat datozen irizpideak.

Izan ere, babes ofizialeko etxebizitzak eraiki behar diren udalerriko auzoa izatea eta antzeko irizpideak, balorazioagatik, etxebizitza bat lortzerakoan ezinbesteko baldintza behartzen direnean, usteldu egiten dira behar egoerak, legeriak berak babesten dituenak.

Zentzuzkoa da, erakunde publikoen, beren jarduketetan, erosleak hautatzeko baremoa zehazterakoan, lehentasuna eman diezaiotela auzotasunari, etxebizitza erosteko laguntza publikoen behararen berdintasunaren kasuetan. Izan ere, horrek adierazten du beren kezka beren herritarren, udalerriko auzoen, egoera hobetzeko, horiek baitira udalek ordeztzen dituztenak. Hala ere, auzotasun irizpideak ez luke hain balorazio handirik eduki behar, egitez babes ofizialeko etxebizitzak erosteko beharra hobeki adierazten duten bestelako egoerengatik eskatzaileek izan litzatekeen puntuak ezabatu egiten baititu.

Horregatik, balorazio irizpideei emaniko puntuetan izaniko alde garrantzitsuak daudelarik, babes ofizialeko etxebizitza erosteko baremoek egotzi egin diezaietete, batzuetan, haiek erosteko interesa duten hiritar askori.

Gai honi gurut, arazo hauei erantzun dakiela eskatzen da:

1.- Bada gure Komunitatean aplikatzekoa den legeriarik, babes ofizialeko etxebizitzaren erosleak hautatzeko baremoen ezarpena arautzen duenik?

2.- Erantzuna ezezkoa bada, uste du Nafarroako Gobernuak beharrezkoa dela berezko legeria ezartzea, babes ofizialeko etxebizitzaren erosleak hautatzeko baremoetan ezarritako balorazio irizpideetan emaniko puntuak parekatzea posible egiteko?

3.- Sustatzaile batek eskaturik, Nafarroako Gobernuak etxebizitza multzo bat babes ofizialekoen sailkapenean sartzan duenean, nolabait, ezarritako irizpideak eta haiek lehen aipaturiko baremoetan baloratzea kontutan hartzen dira? Inoiz egiaztatzen da ezarritako baremoak aplikatzen eta betetzen diren?

4.- Baremo horiek indarra duten etxebizitzarako laguntza programen litezkeen onuradunenak neurri handi batean gehitzeko balio badute, non datza muga legez ezarritako hatsapenak, lehen aipatu ditugunak, betetzerakoan?

5.- Zer egoera edo jarduketaren aurrean alda dezake Nafarroako Gobernuak udal entitate batek ezarritako baremoa, kasuan kasuko Departamentuaren bidez?

6.- Zer egin beharko lukete hiritarrek babes ofizialeko etxebizitzaren erosleak hautatzeko baremoa aldatzeko?

Iruñean, 1996ko urriaren 9a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## Lurzati kontzentrazioaren prozesuari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 16an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Lurzati kontzentrazioaren prozesuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Nafarroako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoaren babesean, hurrengo galdera egiten du idatziz erantzun diezaioten:

Oraintsu egin den 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuaren aurkezpena dela eta eduki ahal izan dugu Neka-

zaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak lurzati konzentrazioari buruz eman dituen datu orokorren berri. Egun, eta datu horien arabera, 91.172 hektarea dago Nafarroan konzentrazio prozesua hasita.

Inork ez du zalantzan jartzen lurzati konzentrazioak duen garrantzia nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen egiturak hobetzeko, inork zalantzan jartzen ez duen bezala prozesu zaila dela, alegia, hainbat faktore oso ezberdinek eragiten diola, hori burutzeko aurreikusi diren epeak nabarmen luza-tzea eragiten dutelarik

Konplexutasun hori dela eta, Parlamentari Taldeek zail dute Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren jarduketan jarraipena egitea.

Hori horrela, eta lurzati konzentrazio prozesuen egungo egoera behar bezala ezagutzeko asmoz, parlamentu galdera hau egiten dut informazio zehatz-mehatza lortzeko, izan ere, gure Parlamentari Taldeak ezinbestekotzat jotzen baitu hori Nafarroako Gobernuak lurzati konzentrazioaren inguruan burutu duen ekintza ebaluatzeko funtsezko datuak izateko.

Beraz, eta 1996ko azaroaren 30ean lurzati konzentrazio prozedura hasita duen eskualde bakoitzean, hurrengoek buruzko informazioa nahi da:

1.- Eskualdearen izena eta zer udal dermiotatik dagoen.

2.- 5b helburuko eskualdea den edo ez.

3.- Sekainen edo ureztatze lurren konzentrazioa den.

4. Lurzati konzentrazio prozesuko eskualdearen azalera.

5.- Jabe kopurua.

6.- Jarduera nagusia nekazaritza dutenen kopurua.

7.- Konzentrazioaren aurreko lursail kopurua.

8. Prozesuaren osteko lursail kopurua, datu hori ematerik baldin badago.

9.- Lurzati konzentrazioari buruzko Dekretuaren eguna.

10.- Eskualde bakoitzaren egoera aipatu egunean. Bereiz bedi lurzati konzentrazio prozesuaren zein alditan dagoen, hurrengoek arabera: Dekretua, behin-behineko oinarriak, behin betiko oinarriak, konzentrazio proiektuak, proiektu irmoa, birplanteatzea edo zuinketa, obrak burutzeko, jabetza tituluak egitea, tituluak notaria eta erregistroetan, lurzati konzentrazio prozesu osoaren aurrekontua, 1997ko ekitaldian burutzeko aurreikusita dagoen aurrekontua.

11.- Azkenik, lurzati konzentrazioa eskatu eta Dekretuaren zain dauden eskualdeen zerrenda.

Iruñean, 1996ko abenduaren 9a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## Marcillako gaztelua zaindu eta zaharberritzeari buruzko galdera

### FELIX M<sup>a</sup> TABERNA MONZON FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón Foru Parlamentari jaunak Marcillako gaztelua zaindu eta zaharberritzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón Izquierda Unida-

Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Ba ote du Nafarroako Gobernuak asmorik heldu diren hiru urteetako Marcillako Gaztelua zaindu edo zaharberritzeko ekintzarik egiteko?

Zer iritzi du Nafarroako Gobernuak monumentu horretaz eta zer interes historiko, artistiko eta kultural ematen dio?

Iruñean, 1996ko abenduaren 9a

Foru Parlamentaria: Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón

## Larraga-Lerin errepedea egokitzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Larraga-Lerin errepedea egokitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarrikoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Larraga-Lerin errepedea ezin okerrago zegoela ikusirik, Nafarroako Gobernuak konpromezua hartu zuen behar ziren hobekuntzak egiteko, "NA-

6119 errepedea Larragaren eta NA-6120 errepede-arekiko gurutzearen artean zabaldu eta hobetzeko proiektua", hain zuzen ere. Hala ere, Parlamentari Talde hau kezkatu dago, proiektu horren faseak atzeratzen ari direlako, eta komenigarritzat jotzen du 1997an burutzea, ondoren, beste tarte batzuk egokitzeko.

Horregatik, interesgarritzat jotzen da jakitea:

Zer iritzi du Nafarroako Gobernuak gogoeta horietaz?

Esan dezake Nafarroako Gobernuak benetan nahia duela "NA-6119 errepedea Larragaren eta NA-6120 errepedearekiko gurutzearen artean zabaldu eta hobetzeko proiektuko" obrak 1997an burutzeko?

Errepide horretako gainerako tarteez, badu asmorik proiektuak prestatzeko?

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## “Itoizko urtegiaren gelditzeak ukitutako enpresendako eta langileendako kalteordainak” izeneko aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 16an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Itoizko urtegiaren gelditzeak ukitutako enpresendako eta langileendako kalteordainak” izeneko aurrekontu-kontusailari egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Nafarroako Foru Parlamentariak, Biltza-

reko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoaren babesean, hurrengo galdera egiten du idatziz erantzun diezaioten:

1996ko apirilaren 6an, "Solidarios con Itoiz" taldeko zortzi kidek Itoizko urtegiko hormigoitze lanak egiteko jarri ziren hiru blondineen kableak moztu zituzten.

Kalteen larriak aipatu obrak ia erabat gelditu beharra eragin zien enpresa eraikitzaileei.

Ekintza horren ondorioz, obrak egiten ari ziren langileei lan kontratua deuseztu edo eten egin zitzaion, kasu bietan lanik gabe geratu zirelarik.

Kontuan izanik langileei eragindako kalteak, alegia, obrak etenda zeuden bitartean prestazio kontributibo zein laguntzakoak jasotzeko eskubiderik ez zutela, Nafarroako Gobernuak, 1996ko apirilaren 22an erabaki zuen laguntza edo dirulaguntza batzuk paratzea, Itoizko urtegiaren erai-

kuntzaren etenak langile zein enpresei eragindako ekonomi ondorio larriak arintzeko.

Horretarako, Foru Lege proiektua bidali zion Biltzar honi, Lehendakaritza Departamentuari Itoizko Urtegiko lanen gelditzeak enpresei eta langileei kalteak ordaintzeko, aparteko kreditua eman eta haren aplikazioa arautzeko

Aipatu aparteko kreditua, eta horren erabilpenaren arauketa, 43 aldeko botorekin onartu zen, kontrako botorik eta abstentziorik gabe, Nafarroako Parlamentuak joan den maiatzaren 9an egindako Osoko Bilkuran.

Foru Lege horrek aurrekontu kontusail berri bat finantziatu zuen, "Itoizko urtegiaren gelditzeak ukitutako enpresendako eta langileendako ordainketak" izenekoa, "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" aurrekontu kontusailaren kontura.

Foru Lege horrek bere 3. artikuluan dio diru laguntza edo kalteordainen onuradunak direla: "bere lan kontratua deuseztatua edo etena duten langileak, beti ere Enpleguaren Institutu Nazionalaren (INEM) prestazioak, kontributiboak zein laguntzakoak, jasotzeko eskubiderik ez badute".

Maiatzaren 13ko 6/1996 Foru Legeak, halaber, ukitutako enpresa eta langileendako laguntza ekonomikoak arautzen zituen, eta horien tramitazioa eta ordainketa ere.

Langileendako jarri ziren laguntzen iraupenaz denaz bezainbatean, lege horrek zioen: "Dirulaguntzak 1996ko apirilaren 11tik aurrera gelditutako lanak hasiko diren eguna arte iraunen du. Edozein kasutan ere 1996ko abenduaren 31n bukatuko dira."

Azkenik, 9. artikuluan zehazten ziren aipatu laguntzen ikuskapena eta kontrola egiteko organo eskudunak, eta Azken Xedapen Lehenbizikoan Nafarroako Gobernuari ahalmena eman zitzaion Foru Lege hura garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

Obrak gelditzearen ondoriozko egoeraren ohiz kanpokoak eragin zuen Nafarroako Gobernuak Gobernu Erabakia hartzea. Erabaki horretan, egoeraren larriaren aurrean, gelditzearen ondorioz lanik gabe geratu ziren langileak lehen bait lehen laneratzea erraztu nahi zuten.

Erabaki horretan, halaber, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari ahalmena eman zitzaion ukitutako langileei enplegua emateko obraren kontratazioa egiteko, azkar eta administrazioen kontratuak egun arautzen duen legeriak

aurreikusten duen prozedura negoziatuaren arabera.

Gobernuaren Erabakiz ere, Departamentu berari esku eman zitzaion toki entitateekin hitzarmenak egiteko, Itoizko urtegiko obrak ukitutako azpiegituren birjarpen beharrezanen ondoriozko tokiko obrak kofinantziatzeko.

Horiek horrela, hurrengo galdera egiten da informazioa eskatzeko 6/1996 Foru Legeak hartzen duen obra bakoitzari buruz, hurrengoei jarraituz:

1. Obren kontratazioa egin duen Gobernuaren Departamentuak.

2.- Obren zehaztapen laburra.

3.- Enpresa hartzailea.

4.- Esleipen eguna.

5.- Obrak burutzeko epea.

6.- Obrak hasteko eguna.

7.- Obrak bukatzeko eguna, hala bada.

8.- Kontrata bakoitzeko burutzearen aurrekontua.

9.- Itoizko obrak gelditzeak ukitutako zenbat langile hartu diren obra horietarako.

10.- Aipatu langileak zenbat denboraz kontratatu ziren.

Era berean, 7. artikulua ukitutako langileendako ezarri zituen laguntzen tramitazio eta ordainketari buruzko informazioa nahi da. Hurrengo informazioa eskatzen da horri buruz:

1.- Zenbat langilek eskatu duen ezarritako laguntza.

2.- Zenbat langilek jaso duen ezarritako laguntza.

3.- Emandako laguntzen guztizko kopurua.

4.- "Itoizko urtegiaren gelditzeak ukitutako enpresendako eta langileendako ordainketak" kontusailaren hasierako aurrekontu dotazioa.

5.- Kontusail horretan 6/1996 Foru Legeak xedatua betetzeko eskura zeuden zenbatekoen guztizko kopurua, zertakoa aipatuz.

6.- 1996ko abenduaren 31n aipatu aurrekontu lerroari aurreikusten zaion aurrekontu-disposizioa.

Iruñean, 1996ko abenduaren 12a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas



## 1996-1997 ikasturterako Gizarte Bermeko Egitarauaren zenbait gorabeherari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak 1996-1997 ikasturterako Gizarte Bermeko Egitarauaren zenbait gorabeherari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko urriaren 23ko 55 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko azaroaren 26a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak 1996-1997 ikasturterako Gizarte Bermeko Egitarauari buruz egindako galdera dela eta, idatziz erantzutekoa, hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak dioena:

1.- Artean Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Etxebizitza izena zuen Departamentuan zegoen aurreko taldeari egokitu zitzaion 1996-1997 ikasturterako

Gizarte Bermeko Egitarauen eskaintza egitea, horri buruz egiten den aipamen bakarra 100/1996 Foru Agindua delarik, "Gizarte Bermeko Egitarauak aurretiaz ezartzeko jarraibideak" alegia. Beraz, horretara jotzen dut.

2.- Aurreko kasuan bezala, Departamentuko aurreko arduradunek eman beharko lukete erantzuna. Esan beharra dago, ordea, galderak aipatzen dituen Tailer Eskolek hitzarmena izenpetuta dutela Gizarte Ongizatearekin.

3.- Hala da, bai, egun Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren ardura duginok begi onez ikusten dugu aipatu dituen Tailer Eskolek egiten duten gizarte lana eta prestakuntza. Beraz, kontutan hartu beharko lirakeke geroko Gizarte Bermeko Egitarauak lantzeko orduan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluek xedaturikoa betez.

Iruñean, 1996ko azaroaren 20a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## “La vida moral y la reflexión ética” tituluko D.B.H.ko 4. ikasturteko testu liburuari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunak “La vida moral y la reflexión ética” tituluko D.B.H.ko 4. ikasturteko testu liburuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko urriaren 31ko 58 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko azaroren 26a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunak “La vida moral y la reflexión ética” tituluko

D.B.H.ko 4. ikasturteko testu liburuari buruz egindako galdera dela eta, idatziz erantzutekoa, hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak dioena:

1.- Nafarroako Foru Komunitatean, unibertsitatez besteko ikasketa mailetarako ikasmaterialak onestea ekainaren 7ko 183/1993 Foru Dekretuz arautu da (93/6/23ko 77 zk.ko NAO). McGraw Hill argitaletxeak bere garaian aurkeztu zuen argitalpen proiektua aztertu eta onartu egin zen eskatutako baldintza guztiak betetzen zituelako.

2.- Bai.

3.- Galderak aipatzen duen liburuak beharkizun guztiak betetzen ditu ikasmaterial gisa onartua izateko. Oraingo honetan, Filosofiako irakasleei dagokie liburua ikasgelan erabil daitekeen ala

ez irizpide zientifiko eta pedagogikoen arabera neurtzea.

4. Ez, ikasmaterialak onesteko indarreko legeriaren arabera, galderak aipatzen duen kasuan badirudi ez direla iradokitzen dena egiteko baldintzak ematen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluek xedaturikoa betez.

Iruñean, 1996ko azaroaren 20a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Hezkuntza Departamentuaren gaineko zenbait gairi buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan betez, "Eusko Alkartasuna-Askotariko" Parlamentari Taldeak Hezkuntza Departamentuaren gaineko zenbait gairi buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko urriaren 31ko 58 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko azaroaren 27a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

"Eusko Alkartasuna-Askotariko" Parlamentari Taldeak Hezkuntza Departamentuaren gaineko zenbait gairi buruz eginiko galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak hau dio:

1.- Aurrekontu-ekitaldia dagoen dagoenean, ez dirudi posible dela aurreko Gobernuak (Eusko Alkartasuna parte hartu zuen horrek) urtebetean egiten jakin ez zuena edo egiterik izan ez zuena. Are ezinezkoagoa dirudi, irailaren 16ko Foru Dekretuaren ondorioz ustekabeko beharrak agertu direlarik. 1997ari dagokionez, Departamentu honek asmoa du Parlamentuak Aurrekontuei buruzko Legearen bidez agintzen diona egiteko.

2.- Galdera hain zehatza ez denez, ezinezkoa da zer komunikabidez ari den jakitea eta zer esan nahi duen. Hala ere, esan daiteke euskara erabiltzeko laguntzetarako deialdiek ez dutela behar-tzen toponimia erabiltzera, ez bertan parte hartze-ko, ez haien onuradun izateko ere.

Bestaldetik, une honetan egokia da nabarmen-tzea Iruñearen euskal izen ofiziala Iruña dela eta ez Iruñea.

– Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak hizkuntza bultzatzeko prestatuturiko kanpainak taxutu eta garatzean bildu beharreko hobekuntzak sartzea komeni dela adieraztean, ez da ezbaian jartzen haien egitea. Izan ere, Zuzendaritza Nagusi horretako Euskararen Normalizazio eta Sustapen Zerbitzuaren eginkizunak ezarri zirenean argi eta garbi gelditu zen horietariko bat "euskara sustatu eta garatzeko kanpainak gizarte bizitzako arlo guztietan burutzea" izanzen zela.

Jakinarazi nahi dena da, kontutan harturik edozein giza ekintza hobetzen ahal dela, komenigarria dela kanpaina horien taxutze eta garatzea aztertzea, hobetu beharrez.

Bestaldetik, esan behar da "Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak prestatuturiko sustapen-kanpainen taxutze eta garatzea hobetzeko" helburua, hitzez hitz, aurreko Gobernuan, jadanik agertzen zela H.P.Z.N.ren helburuen artean. Horrek, baina, ez zizun inolako kezkarik eragin.

– Ezin hobeki ezarriak, ezagunak, ohikoak, denek onartuak diren edo, Espainolaren Errege Akademiaren hiztegiak "consolidado" hitzari ematen dion adieraren arabera, sendotasuna eta irmotasuna duten ekintza, gertaera eta jardueri iritzi ohi zaie finkatuak, besteak beste.

Horren ondorioz, ekintza horiek, hauek dira:

– NAO euskaratzea.

– Funtzionarioak hizkuntzari dagokionez trebatzea, Euskaltegiaren bidez.

– Nafarroako toponimia xehea normaldu eta argitaratzea.

Departamentuaren jarduketa jarraibideak biltzen dituen agiri horren asmoa bereziki hiru ekintza horiek aipatzea da eta aditzea, gainera, gure ustez, finkatuak dauden hizkuntza politikako ekin-

tzak direla. Ez da ekintza finkatuen zerrenda zehatzik egin nahi.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artiku-

luetan ezarrikoia betetzeko asmoz.

Iruñean, 1996ko azaroaren 25a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak aurreikusi ote duen Osasunbidean hurrengo ezartzea: HIESaren pronostikoa neurtzeko prozedura, birus zamaren bidezkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak aurreikusi ote duen Osasunbidean hurrengo ezartzea: HIESaren pronostikoa neurtzeko prozedura, birus zamaren bidezkoaz itauntzen duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 8ko 59 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko azaroaren 27a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak galdera egin du, idatziz erantzutzeko, Nafarroako Gobernuak aurreikusi ote duen Osasunbidean hurrengo ezartzea: HIESaren pronostikoa neurtzeko prozedura, birus zamaren bidezkoa. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

Galdera egiterakoan ematen diren mezu batzuk ez zaizkio zientifikoki egokitzen esan edo adierazi nahi omen denari, agerian geratzen delarik kontzeptuen arloko noraezko balantza, izan ere, hain nahastuta daude non erantzunak zehatz-mehatza behar duen.

Txertoaren kontzeptua nahastu egiten da horretan interesa duen enpresa batek proposaturiko saio kliniko terapeutiko batekin eta GIB infekzio prozesua aztertzeko teknika berri batekin.

“HIESAREN AURKAKO TXERTOAREN IZENENKO PROZEDURA”.

Argi eta garbi utzi behar da hasieratik aipatu txerto hori ez dela aurrea hartzeko txertoa, umeei normalean ematen zaizkien modukoa, behar

bezala emanez gero eritasunaren aurkako inmunitatea lortzen baita, aitzitik, txerto terapeutikoa da (inmunogenoa), alegia, inmunitatea gehituz gaisoan tratamendua hobetzen lagunduko duena.

Bigarrenik, aipatu prozedura saio kliniko da, hau da, proba bat hipotesiak emateko eta hipotesiak berretsi egin behar dira saioak irauten duen bitartean, horrelakorik beti gertatzen ez den arren. Emaitei gagozkielarik, onurak kalteak baino gehiago izan behar dute eta onargarriak etikaren aldetik.

Kontzeptuok argitu eta gero esan beharra dago HIESa ikertzeko Frantziako Agentziak ez duela uste irizpide zientifiko positiborik dagoenik gaur egunera arte aipatu bezalako txerto terapeutikoekin egindako ikerketetan.

Hona aipatu saio klinikoari buruz ditugun zehaztasun teknikoak:

– Proiektua zuzentzen duen enpresa “De Imune Respire Corporation” da eta proiektua Espainian zuzentzen duena Eduardo Fernández Cruz jauna da.

– Sare publikoko 12 ospitale sartu dira proiektuan (5 Madrilan, 4 Katalunian, 1 Sevillan, 1 Murzian eta 1 Asturiasen).

– 268 lagun sartuko dira ikerketan, GIBak kutsatuak denak ere, aurretik tratamendu retrobiralik jaso gabeak eta 300 eta 500 arteko CD4 populazio linfozitarioekin.

– Lagun multzo hori 134na pertsonako bi taldetan banatu da. Saio horretan, talde bati txerto terapeutikoa ematen zaio, gehi DDI gehi AZT, eta besteari DDI eta AZT besterik ez.

– Neurtu beharreko aldagaiak biologikoak dira, batez ere: birus zama eta CD4 linfozitoak. Beste adierazle kliniko batzuk ere kontutan hartuko dira.

Ikerketa-taldeak berak aukeratzen ditu ospitaleak, bere irizpideei jarraituz. Ikerketa-taldeak ez du gure Komunitateko ospitale publikorik aukeratu.

#### BIRUS ZAMA.

Birus zama laborategiko teknika da, GIBak kutsaturiko pertsona batek odolaren milimetro kubikoko duen birus kopurua neurtzen duena. Neurketa hori ez da prozedura terapeutikoa, inondik ere, pertsona kutsatuen eta haien tratamenduaren pronostikoa eta bilakaera baloratzeko teknika berria baizik.

Orain arte, balorazio hori egiteko CD4 linfozitak neurtzeko teknika erabili izan da, eta balio handiko jarraitzen du izaten, birus zamaren neurketak ematen duena baino sentsibilitate gutxiagokoa dela ematen duen arren.

Hiru bide deskribatu dira birus zama neurtzeko; guztiek dituzte zailtasun teknikoak, behar bezalako trebakuntzarekin gainditu daitezkeen arren.

Gaur egun, gure Komunitateko osasun sare publikoko zentro batek ere ez du birus zama neurtzeko teknika bereganatu.

Erabili beharreko bidea baloratu ondoren, Nafarroako Ospitalean ezar daiteke, gaiso kutsatueko erreferentzi zentroa baita gure Komunitatean, era berean GIBak kutsaturiko ia guztien jarraipena egiten duena.

Hori ezartzea egoki ote den aztertu ondoren, 1997ko lehen seihilekoan gauzatu daiteke hori.

Ezarri ondoren, eta aurreikuspenen arabera, 450 lagunei dagozkien 1700 neurketa egin daitezke urtean zehar. Egungo kostuari 20 milioi pezeta inguru gehitzea ekarriko lukete neurketa horiek, eta kontuan izan beharko da hori kostua/eragin-kortasunaren aldetik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluek xedaturikoa betez.

Iruñean, 1996ko azaroaren 21a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

---

**G Saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 16an eginiko bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

“**Lehena.**- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista izateko lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia onestea. Haien hautapena ondoren aipatzen diren oinarriekin bat eginen da.

**Bigarrena.** Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa**

Deialdi honen oinarriak ondoko hauek izanen dira:

#### **1. oinarria.- Arau orokorrak.**

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bitartez betetzea.

1.2. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Biltzarreko funtzionarioentzat ezarritako eginkizunak bete eta eskubide eta betebeharrak izango ditu eta, zehazki, Nafarroako Parlamentuan lanpostu horri ezarri zaizkion hurrengo zereginak izango ditu: dokumentazioa edo informazioa sortu, batu, bildu, aztertu, berreskuratzea; informazioa, agertzen den euskarri ezberdinetan, erabiltzeko teknologiak garatu eta kudeatzea; artxiiboak eta liburutegiak katalogatu eta kudeatzea; eta Nafarroako Parlamentuko Artxiibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuruak eska diezazkiokeen antzeko zereginak, dokumentalistaren jakintza arlokoak baldin badira.

1.3. Lanpostua egungo lanpostuen sailkapeneko B mailari dagozkion lansariez hornituko da, eta batez beste osagarria gehituko zaio, % 35, Nafarroako Parlamentuko indarreko plantilarekin bat.

#### **2. oinarria.- Hautagaien betebeharrak.**

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileriaren Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu hori lekualdatze lehiaketa bidez hornituko da. Lehiaketa honetan parte ahal izanen dute Kontuen Ganbarako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio funtzionario guztiek, beti ere jardunean edo Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuko 24.1. artikularen j) eta l) ataletan zehaztu zerbitzu berezietan baldin badaude eta eskabideak aurkezteko epea amaitu orduko honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) B mailaren barneko funtzionarioa izatea.
- b) Diplomatu, injineru tekniko edo arkitekto tekniko edo haien baliokidea den titularen jabe izatea.
- c) Dokumentalista lanpostu baterako izendatua izatea.
- d) Dokumentalista lanpostuan ari zela hurrengo zeregin guztiak bete izana: dokumentazioa edo informazioa sortu, batu, bildu, aztertu, berreskuratzea eta zabaltzea; informazioa, agertzen den euskarri ezberdinetan, erabiltzeko teknologiak garatu eta kudeatzea; artxiiboak eta liburutegiak katalogatu eta kudeatzea.

2.2. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. Oinarrian ezarritako epe eta eran egiaztatu beharko dira. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, hautapen prozesuak diraueno eta izendatu arte bete beharko direla ulertuko da.

#### **3. oinarria.- Eskakerak.**

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera, eskabide gisa,

deialdi honetan argitaratutako ereduari lotua, aurkeztu beharko dute, eta bertan ondoko hau azaldu:

a) Izen-deiturak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta, baldin balu, telefonoa, eta deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazten duen aitortpena. Azken hori frogatzeko, ziurtagiriak erantsi beharko dira.

b) Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. Eraskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta berauen egiaztagiriak, behar bezala kautotuak.

3.2. Eskabideak Nafarroako Parlamentuko Lehendakari Andre Txit Garaiairi igorriko zaizkio, eta lanegun eta lanorduetan aurkeztuko dira Parlamentuko Erregistro Nagusian, Iruñeko Arrieta kalea, 12, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epearen barruan.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

#### **4. oinarria.- Izangaien onarpena.**

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Zerrenda horretan onartutako izangaien izen-deiturak agertuko dira.

4.2. Interesatuek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka eta aka-tsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3. Ezarritako epearen barruan eskabiderik aurkeztu ezean, Parlamentuko Lehendakariak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Hautagai bakarra ere onartuko ez balitz, lehiaketa eman gabe utziko litzateke.

#### **5. oinarria.- Epaimahai kalifikatzailearen osaketa, eraketa eta jarduketa.**

5.1. Hona hemen merezimendu lehiaketa epai-tu behar duen Epaimahaia osatuko dutenak:

Mahaiburua: Fermín Ciáurriz Gómez jauna, Nafarroako Parlamentuko Lehen Idazkaria.

Ordezkoa: Amelia Salanueva Murguialday andrea, Nafarroako Parlamentuko Bigarren Idazkaria.

Mahaikideak:

1.- Langileen Batzarrak izendatutako bat.

Ordezkoa: Langileen Batzarrak izendatutako bat.

2.- Luis Javier Fortún Pérez de Ciriza jauna, Nafarroako Parlamentuko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitziburua.

Ordezkoa: Pablo Díez Lago jauna, Nafarroako Parlamentuko Legelaria.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epearen barruan eratu beharko da.

Horretarako, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

5.3. Jardun ahal izateko, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, Mahaiburuak kalitatezko botoa erabili ahal izanen duelarik.

5.4. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, Epaimahaiak ebatziko ditu, apezlazorik gabe.

5.5. Epaimahaiak behar dituen kanpoko aholkularitza izan dezake, lehiaketa honetako betebeharrak eta merezimenduak behar bezala neurtu ahal izateko.

#### **6. oinarria.- Merezimenduen kalifikazioa.**

6.1. Alegatu eta egiaztaturiko merezimenduak deialdi honen I. Eraskinean azaldu baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu Epaimahaiak.

6.2. Alegatutako merezimendu guztiak agirien bidez frogatu beharko dira, izangaiak lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkezten duten unean.

6.3. Epaimahaiak ezin izanen du, inolaz ere, alegatu eta agirien bidez frogatu ez den merezi-

mendurik baloratu, ezta atal bakoitzean zehaztu gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

Atal ezberdinetan aipaturiko merezimenduak batu ondoren, atal bakoitzari dagozkion gehieneko puntuak gainditzen dituzten lehiatzaileak baldin badira, aipatu muga aplikatuko zaie ere, baina puntuazioak gutxitu egingo dira, beharrezko heinekotasuna gordetzeko.

6.4. Kanpoan geratuko dira eta, ondorioz, ezingo dute lanposturik eskuratu guztizko puntuaketan 10 puntu baino gutxiago atera duten izangaiek.

### **7. oinarria.- Izangaien zerrenda ordenatua eta lanpostuen esleipena.**

7.1. Lehiatzaile guztien merezimenduak baloratu ondoren, Epaimahaiak izangaien zerrenda, lorturiko puntuazioaren arabera, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariari igorriko dio eta honek, hala behar izanez gero, hasieran deituriko lanpostuen kopurua gehitzeari buruzko Ebazpena eman eta zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara ematea aginduko du.

7.2. Lehiakideetako inork gutxieneko 10 puntuak ateratzen ez baditu, Epaimahaiak lehiaketa hutsik uzteko proposamena igorriko dio deialdia egin duen erakundeari.

7.3. Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak puntuaziorik altuena lortu duen izangaiari emanen dio lanpostua eta haren izendapena Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

### **8. oinarria.- Lanpostuaren jabetza hartzea.**

8.1. Izendatutako izangaiak, izendapenari buruzko Erabakia jakinarazi eta ondoko hamar egun naturaleko epearen barruan, hartu beharko du lanpostuaren jabetza.

8.2. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez den lehiakideak lehiaketaren jarduketetatik sortutako eskubideei uko egiten dizkiela ulertuko da, eta hala izanik, lanpostua aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengo den izangaiarekin beteko da.

### **9. oinarria.- Errekurtsoak.**

Deialdi honen aurka administrazioarekiko errekurtsua paratu ahal da Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala egokiaren aurrean, bi hilabeteko epean, aurkatu nahi den egintza argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.

## **I. ERASKINA**

### **MEREZIMENDUEN BAREMOA**

#### **1. Ikasketa tituluak.**

– Dokumentazio-zientziekin zerikusia duten karrerako ikasgaietan ateratako bikain bakoitzeko: gehienez 0,20 puntu.

– Dokumentazio-zientziekin zerikusia duten karrerako ikasgaietan ateratako ohorezko matrikula bakoitzeko: gehienez 0,30 puntu.

– Goi mailako beste unibertsitate-titulu batzuk: gehienez 2 puntu.

– Erdi mailako beste unibertsitate-titulu batzuk: gehienez puntu 1.

– Graduatu ondokoentzako prestakuntza ikastaroak, Dokumentazio-zientziekin zerikusia dutenak: gehienez puntu 1.

– Dokumentazio-zientziekin zerikusia duten ikerketa edo doktrina lanak: gehienez puntu 1.

Horien arabera baloratuko ditu Epaimahaiak batzuk zein bestetzuk. Egile bakarra edo bat baino gehiago den ere izango du kontuan.

Lanen separata ere erantsiko da.

Titulu akademikoak bete behar den lanaren izaera eta zehaztasunei nola egokitzen zaizkien, horren arabera izango da haien balorazioa. Bereziki baloratuko dira Dokumentazioaren arloko merezimendu eta ezagupenak.

Merezimendutzat alegatzen eta baremoan espreski baloratzen diren lerrun akademiko handiagoko beste batzuk lortzeko haien jabetza ezinbesteko baldintza bada, tituluak ez dira baloratuko.

1. atal honi dagokion puntuazioa ez da 5 puntutik gorakoa izanen.

2. Administrazio Publikoetan benetan emandako zerbitzuak.

a) Administrazio publikoetan, nomina eta plan-tilako funtzionario edo lan kontratatu finko gisa, dokumentalista lanpostuan emandako zerbitzuen urte bakoitzeko: urteko 0,40 puntu.

b) Deialdi honetakoa ez beste lanpostutan emaniko zerbitzuak, hala bada, a) ataleko lerroalde egokiari koefiziente murriztaile hauek aplikatuz puntuatuko dira:

A maila (edo goi mailako titulazioa): 0,65.

B maila (edo erdi mailako titulazioa): 0,50.

C maila (edo Goi Mailako Batxilergoa edo haren baliokidea): 0,25.

D maila (edo Eskola Graduatua edo haren baliokidea): 0,15.

E maila (edo Eskolatzte Ziurtagiria): 0,10.

c) Aldi baterako edo bitarteko izaeran, edo behin-behineko lan edo administrazio kontratua izanik, emandako zerbitzuak, nomina eta plantilako funtzionario edo lan kontratatu finkoek egindakoak bezala puntuatuko dira, baina haiek %10 murriztuak.

Beste zerbitzuren batzurekin batera emandakoak eta deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren ondotik emandako zerbitzuak ez dira kontutan hartuko.

Zerbitzu-urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan emandako egunei dagokien puntuazioa emanen zaie izangaiei.

2. atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 5 puntu izanen da.

3. Lanbide curriculuma.

a) Dokumentalista esperientzia alor publiko zein pribatuan: gehienez 4 puntu.

b) Diplomatuari dagozkion beste lanpostu batzuk betetzea alor publiko zein pribatuan: gehienez 2 puntu.

c) Lanpostuarekin zerikusia izanik, izangaiek egindako lan, argitalpen eta prestakuntza-ikastaroak, burutu beharreko zereginekin zerikusia dutenak: gehienez 1,5 puntu.

d) Lehiatzaileek dakizkiten hizkuntzak: gehienez 1,5 puntu, euskaraz jakitea bereziki baloratuko delarik. Era berean, ingeles, frantses, alemaniera eta italiara jakitea ere baloratuko da.

e) Bete beharreko lanpostuarekin zerikusia duten bestelako jarduerak: gehienez puntu 1.

Curriculumaren atal honetan bereziki baloratuko dira diplomatuaren dokumentazio arloko esperientzia, argitalpenak, ikastaroak eta lanpostuak.

Atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 5 puntu izanen da.

4. Txosten psikoteknikoa.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuak, dagokion

probak egin ondoren, lehiatzaile bakoitzari buruzko txosten psikoteknikoa emango du. Deitutako lanpostuaren izaera eta nolakotasunei lehiatzaileak nola egokitzen zaizkien baloratuko du bertan. Aipatu Zerbitzuak bere txosten psikoteknikoan lehiatzaile bakoitzari emandako puntuazioa loteslea izango da lehiaketaren Epaimahaiarendako.

Atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 3 puntu izanen da.

5. Elkarrizketa pertsonala.

Lehiaketako epaimahaiak elkarrizketa bat egingo du baremoaren gainerako ataletan gutxienez zortzi puntu atera duen lehiatzaile bakoitzarekin. Elkarrizketa hori deialdiko lanpostuarekin zerikusia duen edozein gairi buruzkoa izan daiteke.

Atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 2 puntu izanen da.

## II. ERASKINA

\_\_\_\_\_, J/A.k,  
\_\_\_\_ urte eta \_\_\_\_\_ N.A.N. zenbakia duenak,  
\_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_n, \_\_\_\_\_ kalean, \_\_\_\_ zk.an,  
\_\_\_\_ pisuan, \_\_\_\_\_ posta kodea, bizi denak,  
\_\_\_\_ telefono zk.a duenak, behar den begirunez,

AZALTZEN DU:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1996ko abenduaren 16an hartutako Erabakia, dokumentalista lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia egiten duena, jakin duelarik, bertan parte hartu nahi duela.

Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean betetzen dituela.

Azaldutakoaren arabera, J.T.G. horri,

ESKATZEN DIO:

Eskabide honek aipatzen duen lekualdatze-lehiaketan onartua izatea, horretarako, eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela eta alegatutako merezimenduak frogatzeko behar diren agiriak aurkezten dituela.

Iruñean, 1996ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_ (e)an.

Sinadura:



---

**H Saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

---

**Irurtzun-Altsasu Autobia–Sakanako Autobia obrei buruzko Parlamentu-  
ko Ikerketa Batzordea sortzea**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 1996ko abenduaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen: Irurtzun-Altsasu Autobia–Sakanako Autobia obrei buruzko Parlamentuko Ikerketa Batzordea sortzea.

Eta hau guztia jakinarazi nahi da Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikulua ezarritakoa betez.

Iruñean, 1996ko abenduaren 18a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---





NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.700 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 125 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 160 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--